

Espainiako Armadak grebarekin batera ospatuko du bere eguna

MADRIL

Gaur bost ordutako greba orokorra amaitu bezain laster hasiko da Madril erdikaldean Espainiako Armadaren Egunaren ospakizuna. Defentsa Ministeritzak data zehatz hau aukeratu izana kritikak sortarazi ditu alde guztietatik, baina normaltasun irudia gorde-tzearen, ez du datarik aldatu. Hasieran urtarrilaren 6an egin behar zen desfilea, baina atzeratu egin zen une horretan Juan Carlos Espainiako erregea lesionaturik bait zegoen.

Aspaldiko partez Madrilen egingo den ospakizunean 2.500 militar inguru desfilituko dute Bailen kaleetik. Hiru armadetako —Lur, Aire eta Itsasokoa— soldaduen desfilean agintari ugari izango dira Juan Carlos Espainiako erregeaz gain, hala nola, Gobernu ordezkariek, autonomietako lehendakariak, alderdi politikoetako ordezkariek eta beste zenbait goi kargu zibil eta militar. Ez da inolako hitzaldirik iragarri bertan bildutako agintarien aldetik.

Madril aukeratu izana Espainiako Armadak duen irudi txarra garbitzeko kanpainaren

barnean sar daiteke, soldadutza laburtzearekin batera. Julian Garcia Vargasek zuzentzen duen Defentsa Ministeritzak, Armada herritarrei gerturatu nahi die eta Armadaren irudia hobetu. Sindikatuek gaur goizerako greba antolatu duten arren, Vargasek ez du etsi nahi izan eta eguerdian hasiko dira Armadaren egunaren ospakizuna.

MILITARREK DIRUA NAHI

Armadaren Eguna ospatzen dela aipatuz, Gonzalo Rodriguez-Granizo Defentsarako Estatu Goreneko buruak Armadaren aurrekontuak handitzea eskatu du, atzo 'La Vanguardia' egunkariak kaleratzen zuen elkarriketaren arabera. Bere ustetan «Indar Armatuaren gaitasuna une larrian dago aurrekontua txikia dela eta». Armadan birmoldaketa prozesua izaten ari dela dio Rodriguez-Granizok eta prozesu honek arazo larriak sortzen ari dela gaineratzen du. Bere ametsa kolokan dagoela dio Estatu Goreneko buruak eta 2.000. urterainoko aurrekontuetan Armadari diru gehiago ematea eskatu du.


Konfederazio eta federazioaren arteko Europa gogo du Giscardek

Lehendakari ohiak Europaren zabaltzea urrats zaila ikusten du

Giscard d'Estaing Frantziako lehendakari ohiak konfederazio eta federazio ereduaren tarteko sistema batean moldatutako Europa bat eraikitzea nahi luke. Maastrichteko itunaren ondorioak Frantziarentzat ez direla zenbaitek uste bezain handiak izango adierazita, Giscardek eritzi dio Europako elkartearen zabaltzeak sortuko dituen nekeak are zailagoak izango direla.

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

«Oposiziaren barnean, Europari begira ditugun iritzi ezberdinen arazoa konpontzeko, elkarren arteko egitura bat sortzea proposa nezake» adierazita, Valery Giscard d'Estaing UDFko buruak gaineratzen zuen, «honen betekizuna litzateke kompetentzien sailkapena finkatzea, erranez zein geratu behar liratekeen Frantziako Estatu eta erregioen menean eta zein utz ditzakegun Europako batasunaren esku».



Giscard d'Estaing prest dago lehen ministro izateko.

Eskumen ezberdin hauen zehazpena idatzita utzi beharko dela azpimarratu ondoren, Giscardek bere iritzia argitzen zuen atzo agertutako 'L'Express' astekarian. «Nazio izakeran eragina duen hezkuntza esaterako Frantziaren eskumenean geratu behar da. Halaber, sozial segurantza, kultura, ingurugiroaren zati asko. Aldiz, ez dut uste Estatu baten subiranotasuna monetaren kontuan oinarritzen denik; hau XX mendeko asmakizun bat izan zen».

EREDU BERRI BAT ASMATU

Zein ereditako Europa bateratua gogo lukeen galderari erantzunda, Frantziako lehendakari ohiak adierazi zuen: «Hiru motako Europa eraiki daiteke. Bat izango litzateke estatuen konfederazio bat, zeinetan bakoitza bere buruaren jabe izango den nahiz eta elkarlan bat bultzatu».

Bigarren bat izan daiteke Europa federal bat, Estatu Batuen antzekoa. Eta nik gogokoagoa nukeen hirugarren eredu oraindik asmatzekoa da, hau da Europa federatibo bat. Eredu honetan estatu bakoitzak bere nortasuna garatzeko ahalak eskuetan atxeki ditzake baina federazio alderdi bat balitzateke eskumen batzuk elkarren artean bideratzeko». Oposizioan Maastrichteko itunaren aldekoak gehien goa osatzen dutela baietsita Giscardek ez du zalantzarik Senatuak ontzat hartuko duela Konstituzioaren aldaketarako legea. Giscardek gai honi garrantzia kausitzen badio, «Europako eraikuntzaren bidean urrats bat besterik ez» dela dio. Giscardek zailagoa ikusten du Europako batasunaren hedatzea zeren «instituzio ezberdinen artean eraberritza ez bada gauzatzen, sistema heraldu egingo da».

Galiziera erabil dezala eskatu dio Galiziako Legebiltzarrak Europakoari

SANTIAGO DE COMPOSTELA

Europako Legebiltzarrak kaleratzen dituen idazkietan galiziera erabiltzeko eskatu zuen atzo Galiziako Parlamentuak. Alderdi guztiek bat egin zuten PPK aurkeztutako proposamenarekin, Galiziako Alderdi Sozialista-Esquerda Galega ezik. Proposamenaren arabera, galiziera Europako instituzioek egiten duten publizitatean eta Europako Komunitateak (EK) Galizian dituen bulego guztietan erabiliko litzateke.

PPren mozioaren alde egin zuten arren, PSOE-PSdeG eta BNGk kritikatu egin zuten Galiziako Xuntaren bikoiztasuna, «Europako galiziera defendatu eta

Galizian nahikoa bultzatzen ez duelako». Pilar Garcia Negro BNGko diputatuak onartu egin zuen oso zaila dela galiziera Europako instituzioetan bultzatzea eta aurretik «Galizian hizkuntza arrunta bihurtu behar da» aldarrikatu zuen. PSOEko Barrosek bat egin zuen BNGko diputatuaren ikuspuntuarekin eta salatu egin zuen «PPren proposamenaren oportunismo politikoa».

Abstentzioa aukeratu zuen PSG-EGko ordezkariek, Domingo Merinok, bigunegiztat jo zuen Galiziako Legebiltzarraren mozia, «Europako Parlamentuan katalunierari buruz esandakoa kopiatu besterik ez duelako egiten» eta galiziera gehiago gorde behar dela ziurtatu zuen.

a
P
g

Asociación de
Agencias de
Publicidad de
Gipuzkoa

Gipuzkoako
Publizitate
Agentzien
Elkartea

PUBLIZITATE AGENTZIEN ELKARTEAREN IRUDI BERRIA

Gipuzkoako Publizitate Agentzien Elkartea, zuzendari batzordea berriro ondoren, etapa berri bati eman dio hasiera eta logotipoa estreinatu du. Logotipo honek diseinu modernoa du eta AAPG-ADEGI sigletan oinarrituta dago. Hemendik aurrera, horrexek identifikatuko du Elkartea eta horrela Gipuzkoako publizitate sektorearen zerbitzua berritzeko borondatea azaldu nahi du.

Irudi berri honen sustatzaile publizitateko profesional talde bat izan da, AAPG-ADEGIko zuzendaritza batzordeko kide direnak, horien artean daude, hain zuzen ere: Alberto Luque, "Publis" agentziakoa, lehendakari gisa; Fernando Lacoste, "Publiclub"ekoa, lehendakariorde eta diruzain gisa; Javier Arrue, "Código" agentziakoa, idazkari gisa; eta Ramon Echeveste "Ruiz y Otegui"koa eta Iñigo Galatas "Compañía de Publicidad" agentziakoa, kide gisa.

Profesional talde honek funtsezko helburuetako bat izango du formazio eta informazio lanak sustatzen saiatzea, eta gero erakundeetan elkarrean ordezkaritza edukitzea, publizitate sektoreko interesen defentsarekin batera.

Elkartea, gainera, publizitate eta komunikabideetako profesional, iragartzaile eta dituen zerbitzuetako bezeroen arteko harremanei jarraipena eman nahi die eta berrindartu ere nahi ditu.

Avda. de Tolosa, 111.2º
20009 San Sebastián
Apartado 1.053
20080 San Sebastián
Teléfono 943.21.56.00
Fax 943.21.82.90

ADEGI

Asociación de
Empresarios de
Gipuzkoa

Gipuzkoako
Entresariaren
Elkartea